



2010-02-06

Estitxu Arozena gogotsu itzuli Txapelketara eta Garesen nagusitu zen

Taula gainetik hiru urtez Nafarroako Bertsolari Txapelketan parte hartu gabe izan ondoren, Estitxu Arozena gogotsu itzuli da aurtengora. Larunbatean Garesen egin zen lehen faseko azken saioan lehenengo postua eskuratu eta finalurrekoetarako sailkapen zuzena lortu zuen.

Ikusmin handia zegoen aurtengo Txapelketako laugarren azken-laurdenarekin; besteak beste, finalurrekoetara ze bertsolari sailkatuko ziren erabaki behar zelako. Oso giro polita izan zen Garesko Udaletxeko ganbaran, 150 bertsozale elkartu eta aretoa guztiz bete zen.

Taula gainean hiru lesakar, eta horien artean egoera oso diferenteak. Estitxu Arozenak bitan irabazi du Nafarroako Bertsolari Txapelketa eta Ioar Taintarentzat, berriz, lehen parte-hartzea zen.

Arozenak garbi utzi zuen kontutan hartzeko hautagaia dela; ofizioka egin zituen lanik borobilenak, bereziki zortziko txikian eta hamarreko txikian. Alde handia atera zion bigarren sailkatuari, bakarkako ariketa ederra osatu zuen Eneko Lazkoz etxarriarrari. Hirugarren eta laugarren, Xabier Terrerosek eta Jon Elizetxek egin zuten eta horiek ere lortu zuten finalurrekoetarako sailkapena.

Honakoa izan zen puntuazioa:

Estitxu Arozena	407 puntu
Eneko Lazkoz	386 puntu
Xabier Terreros	382 puntu
Jon Elizetxe	367,5 puntu
Alazne Untxalo	333 puntu
Ioar Tainta	318 puntu

Garesko saioa amaituta, finalaurrekoetara ze bertsolari pasa diren jakin ahal izan zen. Azken-laurden bakoitzeko irabazlea (Arkaitz Goikoetxea, Xabier Legarreta, Ander Fuentes “Itturri” eta Estitxu Arozena) eta hamaika puntuaziorik onenak. Horiekin batera, zuzenean sailkatuta zeuden Julio Soto, Iñigo Olaetxea eta Jon Barberena.

Horrela gelditu dira hiru finalaurrekoak:

Otsailak 20, Etxarri-Aranatz

Kultur Etxea, 17:30ean

- Julio Soto
- Estitxu Arozena
- Ander Fuentes “Itturri”
- Xabier Terreros
- Oskar Estanga
- Saioa Alkaiza

Otsailak 27, Irurita

Gizarte Bilgunea, 17:30ean

- Iñigo Olaetxea
- Xabier Legarreta
- Julen Zelaieta
- Iñaki Aleman
- Iñigo Ibarra
- Migel Mari Elozegi “Luze”

Martxoak 7, Atarrabia

Indurain Anaiak kiroldegia, 17:30ean

- Jon Barberena
- Arkaitz Goikoetxea
- Eneko Lazkoz
- Oier Lakuntza
- Jon Elizetxe
- Aimar Karrika